




Oleta galtzara zabalduko dute



Urte hasieran Oleta galtzara zabaltzeko lanak hasiko dituzte. Espaloiak eta autoak uzteko tokiak ere egokituko dituzte.

Berez, Oleta galtzara bi norabidekoa da egun. Hala ere, bi auto gurutzatuz gero, batek geratu behar izaten du nahitaez, besteari pasatzen uzteko. Errepidea estua da oso -hiru metro eta erdi inguruko zabalera besterik ez du-, eta gainera, auzotarrek autoak alboetan utzi ohi dituzte, bidea are gehiago estutuz. Hemendik gutxira, estuasunak bukatuko dira.

Izan ere, Oleta galtzararen bi zatiak, goialdea eta behealdea, zabalduko dituzte. Goiko zatian, frontoirantz doana, zebrabide batzuk, espaloiak eta eserlekuak jarriko dituzte. Egun ez dago ez zebrabiderik, ezta espaloirik ere.

Beheko zatiari dagokionez, errepidea bera zabaltzeaz gain, aparkalekuak jarriko dituzte bi alboetan; autoak bata bestearen atzetik utzi

beharko dira. Goiko zatian bezala, espaloiak jarriko dituzte behekoan ere. Bestalde, eskailerak jarriko dituzte goialdea eta behealdea lotzeko.

Auzotarren ustez, "funtsezkoa" da autoa uzteko tokia egokitzea: "Auzoaren itxura ez da gehiegi aldatu, baina duela urte batzuk baino jende gehiago bizi da orain Oletan. Auzora etorritako askok autoa dute, eta egun ez dago apar-

katzeko nahikoa tokirik", esan digute auzo elkartekoek.

Buruhaustek sarrerarekin

Oletara sartzeko bideak buruhaustek eragin dizkie betidanik auzotarrei. Izan ere, bihurgune baten parean geratu behar izaten dute, eta Oletara sartzeko Altzatik behera ibilgailurik ez datorren arte zain egon behar dute. Teknikariak jabetzen dira bihurgunean gelditu behar izatea ez dela eroso. Haatik, zaila iruditzen zaie arazoa konpontzea. Obrak bukatutakoan, auzoko sarrera zertxobait zabalagoa izango da, baina ibilgailuek, orain arte bezala, bihurgunean geratu beharko dute. Dena dela, Udalak etorkizuneko egitasmoetan sarrera aintzat har dezan nahi dute auzotarrek: "Sarrera ez da samurra, eta auzoaren sarrerako zebrabideak ere kezkatzen gaitu. Ez da eraginkorra, bihurgunean bertan dago, eta ibilgailuak nekez gelditzen dira."

Donostialdea - Oarsoaldea - Hernanialdea - Kostaldea

zer entzuten da Gipuzkoan

105.7 fm



Goizetik arrats... Beti euskaraz
GYRE IRRATIA
Zure Irratia 106.6 - 90.5 FM

Donostialdea - Oarsoaldea - Hernanialdea - Kostaldea